

Nafarroako Kanpoko Ebaluazio Estandarizatuak
EBALUAZIO DIAGNOSTIKO ZENTSALA
DBHko 2.a
2018/2019 ikasturtea

Jarduketa protokoloa

AURKIBIDEA

A.	2018/2019 ikasturteko berritasunak.....	3
B.	Galdera-sorta sozioekonomiko eta kulturala online aplikatzeko protokoloa	3
C.	Probak entregatzea eta zaintzea	4
D.	Ikasleak salbuesteko irizpideak	5
E.	Proba egokitzea hezkuntza premiak dituzten ikasleei	5
F.	Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programan (IEHP) ari diren ikasleak	6
G.	Curriculum Egokituko Programan (CEP) ari diren ikasleak	6
H.	Probak betetzea	7
I.	Aplikazio fasea prestatzea	7
J.	Aplikazioa	7
K.	Proba egunean etorri ez diren ikasleak	8
L.	Ingeleseko hizkuntza gaitasuneko probaren berariazko jarraibideak	9
M.	Probak aplikatzeko egutegia	11
N.	Proben zuzenketa	11
O.	Datuak sartzera	12
P.	Ikaslearen eta ikastetxearen txostenak eskuratzea.....	13
Q.	Egindako probak gordetzea.....	15
R.	Eskerrak ematea	15
1.	ERANSKINA - SALBUETSITAKOEN ERREGISTROA	16
2.	ERANSKINA - EGOKITZAPENEN ERREGISTROA	17
3.	ERANSKINA - Jarduketa garrantzitsuenen egutegia	18

Dokumentu honetan azaltzen dira Nafarroako ikastetxe guztiek kontuan hartu beharreko jarraibideak, ebaluazio probak denetan kontrolpean eta modu berean aplikatzen, zuzentzen eta erregistratzen direla bermatzeko.

Ebaluazio honen aplikazio, zuzentze, grabatze eta informatze lanean zuzenki inplikaturik dauden zuzendaritzako kide eta irakasleek behar bezain aurretik ezagutu beharko dituzte jarraibide hauek, eta praktikara eraman.

A. 2018/2019 ikasturteko berritasunak

- EDUCAn ebaluazioarekin erlazionatutako hainbat zeregin nola burutu deskribatzen duen gida sortu da ("EDUCA gida" aurrerantzean).
- *Online* testuinguruko galdera-sorta uneoro elebidun (gaztelania/euskara) izango da, nahiz eta erantzuteko hautatutako hizkuntza argi nabarmenduko den. Hizkuntza-erabilerei buruzko zenbait galdera zabaldu edo berridatzi dira.

B. Galdera-sorta sozioekonomiko eta kulturala *online* aplikatzeko protokoloa



"EDUCA gidan"
Argibide gehiago

Hezkuntza Departamentuak berrmatatu du ikasleek *online* galdera-sortan ematen dituzten datuen isilpekotasuna. Ebaluazio diagnostikoaren txostenean, ikastetxeek indize sozioekonomiko eta kulturala izaten segituko dute, indize horren arabera, gaitasun bakoitzerako balioetsitako puntuazioekin eta grafikoak gaitasun bakoitzerako Errendimendua-ISEK erregresio-zuzenarekin eta hartan ikastetxea non dagoen adieraziz.

Galdera-sorta hobeki aplikatzeko, ikastetxeek jarraibide hauek beteko dituzte:

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. ikasmaila egiten ari diren ikasle guztiek bete behar dute galdera-sorta, salbu eta ezinezkoa dutenek ebaluazio diagnostikoko probetan salbuesteko ezarritako irizpide berberak aplikatuz (ikus D atala).

2. Galdera-sorta helbide honetan eskuragarri izanen da:

<http://dpto.educacion.navarra.es/eed/>

3. Ikasleek web aplikazioan sartzeko erabiltzaile izena (zenbakizko sei karaktere) eta pasahitz pertsonal bat (lau karaktere: bi zenbaki eta bi letra).

KASU! Pasahitz hori behin bakarrik erabiltzen ahal da.

4. Testuinguruko galdera-sorta uneoro elebidun (gaztelania/euskara) izango da, nahiz eta erantzuteko hautatutako hizkuntza argi nabarmenduko den.

5. Ikastetxeetako zuzendariak erabiltzaile izenen eta pasahitzen zerrenda (matrikulaturiko ikasleak bezainbeste) **Educa** aplikazio informatikoaren bidez jasoko dute (**Educa** → **Ikastetxearen ebaluazioa** → **Ebaluazio diagnostikoa**).

Zerrenda horretan ikasle bakoitzaren identifikazio datuak ere agertuko dira (ikasmaila, taldea eta izen-abizenak). Zuzendariak 2019ko urtarrilaren 28tik aurrera zerrenda horretara sarbidea izango dute.

Aplikazioa egin behar denean, ikastetxeko zuzendariak DBHko 2. ikasmailako tutore bakoitzari erabiltzaile izenak eta pasahitzak (ikasleak bezainbeste) emanen dizkio, hark bere ikasleen artean banatu ditzan.

6. *Prestakuntza*. Aplikazioa egin aurretik, tutoreek, ikasleek eta familiek askatasunez praktikatzeko ahalgo dute, aplikazioan sartzeko **probako erabiltzaile izen eta pasahitz** hauek erabiliz:

Probako erabiltzaile izena: Irati

Probako pasahitza: Irati

Noiznahi eta nornahi sar daiteke *probako erabiltzaile* modura. Horrek aukera ematen die tutoreei, ikasleei eta familiei galdera-sorta aztertzeke eta datuak betetzeko **sartutako datuak aplikazioan gorde gabe**, *bidali* botoian *klik* eginda ere ez dira gordeko.

Ikastetxeak berak erabaki dezake nola bete behar den galdera-sorta. Nolanahi ere, komenigarritzat jotzen da prestakuntza tutoretza-jarduerak egitea ikasleek galdera-sorta eta betetzeko jarraibideak ezagutzeko eta bete behar duten unean galderei segurtasunez erantzuteko.

7. *Aplikazio saioa.* Tutoreak antolatuko du saio hau eta ikastetxeko ordenagailuak erabiliko ditu horretarako. Ikasleak aplikazioan sartuko dira, tutoreak ikasle bakoitzari emanen dizkio erabiltzaile izena eta pasahitza, ikasleek aplikazioan sartuko dituzte eta galdera-sorta beteko dute.

Aldez aurretik prestatu bada, erraz betetzen da. Nolanahi ere, alderdi hauek kontuan hartu behar dira:

- Gutxi gorabehera 30 minutu behar dira betetzeko.
- Galdera bakoitzean, ikasleak aukeren artean soilik erantzun bat hautatuko du. Erantzuna noiznahi alda daiteke.
- Galdera-sortan atzera eta aurrera egin daiteke.
- Galdera-sorta bukatzeko eta erantzunak gordetzeko, *klik* egin behar da ***Bidali*** botoian. Hau egitea nahitaezkoa da erantzunak gordetzeko.
- Galderaren bat erantzun gabe utzi bada, ***Bidali*** botoian *klik* egiten denean aplikazioak ohartaraziko du, eta galdera-sorta betetzen segitzeko aukera izanen da edo bukatutzat emanen da ***Horrela bidali*** botoian *klik* eginez.

Badira erantzun gabeko galdera batzuk.
Amaitzeko, sakatu ***Horrela bidali*** botoia, edo, bestela, osatu galdera-sorta eta sakatu ***Bidali*** botoia

Horrela bidali.

- ***Bidali*** botoian *klik* egin eta galdera-sorta bukatu ondoren, ezin izanen da berriz sartu galdera-sortan erabilitako erabiltzaile izenarekin eta pasahitzarekin.
8. *Epeak.* Galdera-sorta **otsailaren 1etik 28ra bitartean** beteko da. Epetik kanpo sartzen diren galdera-sortak ez dira kontuan hartuko ikastetxeko ISEKa kalkulatzeko. Sarbide arazorik egonez gero konpontzeko aukera izateko, aplikazioa azken egunetarako ez uztea gomendatzen da.
9. *Oharrak eta zalantzak.* Era berean, izan daitezkeen zalantzak Ebaluazio eta Kalitate Atalean argituko dira, posta elektronikoaren bidez (sec.eka@navarra.es) edo telefono hauek erabiliz: 848 42 71 19 / 848 42 67 98.

Galdera-sorta ongi betetzen bada, ikastetxeek datu fidagarriagoak izanen dituzte eta beren ikasleen hezkuntzari buruzko alderdi garrantzitsuak hobeki ezagutuko dituzte.

C. Probak entregatzea eta zaintzea

1. Aurreko ikasturteetako prozedura erabiliko da, zuzendaritza taldeko edozein kidek edo bere esku utzitako konfiantzazko pertsona batek probak jaso ahal izango ditu (sinadura kontrola izango da jasotzean):
 - a) Lizarra, Lekaroz, Tafalla eta Tuterako ILZei atxikiriko ikastetxeek probak dagokien ILZren egoitzan jasoko dituzte, **2019ko martxoaren 25an, 26an eta 27an**.
 - b) ILZ horiei atxikiriko ikastetxeren batek Iruñean jaso nahi baditu, **posta elektronikoz jakinarazi beharko dio Ebaluazio eta Kalitate Atalari, 2019ko otsailaren 28a baino lehen (sec.eka@navarra.es)**.
 - c) Iruñeko ILZri atxikiriko ikastetxeek probak Hezkuntza Departamentuko Liburutegian jasoko dituzte (beheko solairua), **2019ko martxoaren 25an, 26an eta 27an**, 08:30etik 14:30era.
2. Behin ikastetxean, egiaztatuko da jaso diren probak zuzen daudela (koaderno kopurua, hizkuntza, CD kopurua). Ebaluazio eta Kalitate Atalean zeinahi gorabehera jakinarazteko azken eguna **apirilaren 3a izanen da, asteazkenarekin**.
3. Zuzendaritza taldeak proba bakoitzean beharko diren koadernoen kopuru zehatza emanen die irakasle aplikatzaileei, **proba hasteko ordubete edo gutxiago** falta denean. Koadernoak paketatuta egonen dira, eta proba hasteko unean irekiko dira.
4. Irakasle aplikatzaile eta zuzentzaileek erabat isilpean gordeko dute proben edukia, 2019ko maiatzaren 10a arte. Egun horretatik aitzina probak aske eta irakasleendako eskuragarri geldituko dira.

D. Ikasleak salbuesteko irizpideak

Orokorrean, DBHko 2. ikasmilan dauden ikasle guztiek egin beharko dituzte proba hauek, Hezkuntzaren Sostengu edo Errefortzuarekin (HE) eta Errekuperazio Programekin (ERP) ari direnak barne). Salbuespena izanen dira ondoko irizpideren batengatik proba egin ezin dezaketanak:

- Hezkuntza Sistemari berandu sartu diren ikasleak, Curriculum Eguneratzeko Planari (CEP) ari direnak, curriculum atzerapen larria eta/edo eskolatze hizkuntzan (gaztelania edo, bestela, euskara) gabezia handiak badituzte.
- Proba egitea galarazten duen inguruabar iragankorra (esate baterako, igeltsatutako besoa, ikusmen urria...).
- Ikasleek desgaitasun psikiko, fisiko, zentzumenezko edo mugitzekoa dutenean, edo portaeraren arazo larriak, horrela erregistraturik badaude Educa kudeaketa programan, DBHko 2. mailan Curriculum Egokitzapen Esanguratsuekin (CEE) ari direnean.

Ikasleak aipatutako irizpideetako bat betetzen badu, Salbuesteko Erregistroan eta EDUCA aplikazioan halakotzat agertuko da. Hala bada, haren emaitzak ez dira ikastetxeko txostenean kontuan izanen. Hori hala izanik ere, salbuesti moduan agertzen diren ikasleek proba egin dezakete, haien emaitzak EDUCA aplikazioan sartu ahal izanen dira eta ikaslearen txostena ere lortzerik izanen da.

Salbuesti gisa agertuko dira Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programari (IEHP) edo CEPen 2. mailan ari diren ikasleak, nahiz eta probak egin beharko dituzten, salbu eta ezinezkoa badute salbuesteko orokorrean ezarritako irizpideak aplikatuta (ikus F eta G atalak).

Oro har, proba egiten duten ikasle salbuestiek tutorearen, orientatzailearen edo Pedagogia Terapeutikoko irakasleen laguntzarekin eta haien gidaritzapean egiten dute.

Ikastetxeek aurretik beteko dute **Salbuesteko Erregistroa** (I. eranskina) eta behar den garaiari informazioa emanen diete proben irakasle aplikatzaileei. Erregistroa ikastetxean gordeko da (**ez da Ebaluazio eta Kalitate Atalera igorri behar**). Educan "salbuesti" dauden ikaslearen erregistroan sartzen ahalko da apirilaren 8tik aurrera eta epemuga maiatzaren 9a izanen da, ostegunarekin.

E. Proba egokitzea hezkuntza premiak dituzten ikasleei

Ikastetxeak (zuzendaria, orientatzailea, tutorea, irakasle espezialista...) behar diren egokitzapenak eta laguntzak aurreikusi eta eskura jarriko ditu proba egitea eragozten ez dieten hezkuntza premiak dituzten ikasleendako.

NHBBZk (Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroa) SCEko ikasle bakoitzak sartzeko behar dituen egokitzapenen prestaketan lagunduko du, Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio eta Kalitate Atalarekin eta Orientazio Departamentuarekin edo ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinaturik (egokitzapen kasurik latzenetan).

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikaslearen kasuan, egin beharreko egokitzapenak orientatzaileak eginiko **txosten psikopedagogikoan** oinarrituko dira eta ikastetxeak ikasle horiek ebaluatzeko egiten zituen egokitzapenak erabiliko dira.

Ikastetxeetako **zuzendaritza taldeek** beharrezkoak diren egokitzapenak kontuan izanen dituzte eta erabili beharreko gune eta denborak egoki **antolatuko dituzte**. Galdera-sorta betetzeko denbora handitzen bada, egokitzapenak dituzten ikasleek proba egiten segitzen ahalko dute, probari esleitutako gehieneko denbora agortu bada ere.

Oro har, egokitzapena behar duten ikasleek proba egiten dute, gaitasuna ebaluatzeko izendatutako aplikatzailea aurrez aurre dutela eta haren gidaritzapean betiere.

Egokitzapenak hezkuntza premia berezien arabekoak izanen dira, indibidualizatuak eta berariazkoak, eta funtsean metodologikoak izanen dira eta ebaluazio prozedurekin zerikusia dutenak eta, orobat, haietan ez da proben, testuen edo galderen edukiari buruzko **oharrik, ñabardurarik eta interpretaziorik** egiten.

Besteak beste, neurriak hauetakoak izan daitezke:

- Denbora gehitzea. Oro har proba egiteko ezarritako denbora bukatu ondoren, egokitzapena behar duten ikasleek proba egiten segitzen ahalko dute, ezarritako egokitzapenaren arabera.
- Kokapen egokia ikasgelan.
- Inguru egokia (argiteria, akustika...).
- Ikasleak proba egiteko jarraibide orokorrak eta, kasua bada, ariketa edo ataza zehatz baten berariazko jarraibideak ulertu dituela egiaztatzea.
- Letra tamaina handitzea.
- Proba ahoz egitea (zati batean edo osorik).
- Egiaztatzea ikasle bakoitza proba egiten ari dela arreta edo denbora gehiegi galdu gabe.
- Ahalegina sendotzea eta estimulatzea, ikaslea lagunduz ariketa edo proba egiten segi dezan eta, orobat, ariketa eman baino lehenago galdera guztiak erantzun dituela gainbegiratur.
- Eta abar.

Ikastetxeek aurretik **Egokitzapenen Erregistroa** beteko dute (II. eranskina) eta ikastetxean gordeko da (**ez da Ebaluazio eta Kalitate Atalera igorri behar**). Zuzendaritza taldeak eta/edo orientatzaileak, hala dagokionean, proben irakasle aplikatzaileei xeheki adieraziko diete zer egokitzapen egin behar duten eta, hala behar denean, baita irakasle zuzentzaileei ere. Proben egokitzapenak ez du ondoriozik datuak EDUCA aplikazioan sartzean edo erregistratzean. Ohiko moduan sartuko dira, baita egokitzapena izan duten ikasleek proba egiteko denbora gehiago erabili badute ere.

Irizpide hauek aplikatuta, bermatuko da familiek proba estandarizatu hauetan beren seme-alaben emaitzak ezagutzeko duten eskubidea eta, orobat, ezaugarri pertsonalak kontuan hartuko dira eta emaitzak testuinguruan kokatuta baloratuko dira.

F. Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programan (IEHP) ari diren ikasleak

Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programan (IEHP) 2. mailan ari diren ikasleak **salbuetsi gisa agertuko dira** Salbuetsitakoan Erregistroan eta EDUCA aplikazioan, eta haien emaitzak ez dira ikastetxeko txostenean kontuan hartuko.

Hori hala izanik ere, ikasle horiek **probak egin beharko dituzte**, salbu eta orokorrean ezarritako salbuespen irizpideak aplikatuta ezinezkoa badute.

Ikasleen erantzunak EDUCA aplikazioan sartuko dira eta ikaslearen txostena eskuratuko da.

G. Curriculum Egokituko Programan (CEP) ari diren ikasleak

CEPeke ikasleak **salbuetsi gisa agertuko dira** Salbuetsitakoan Erregistroan eta EDUCA aplikazioan, eta haien emaitzak ez dira ikastetxeko txostenean kontuan hartuko.

Hori hala izanik ere, ikasle horiek **probak egin beharko dituzte (ingelesko gaitasunekoia izan ezik)**, salbu eta orokorrean ezarritako salbuespen irizpideak aplikatuta ezinezkoa badute.

Barneko CEPeko ikasleei dagokienez, jardunbide orokorra erabiliko da: ikasleen erantzunak EDUCA aplikazioan sartuko dira eta ikaslearen txostena aterako da.

Kanpoko CEPeko ikasleei dagokienez, ikasleek probak ohiko ikasgeletan egiten dituzte, koadernoak eskuz zuzenduko dira, datuak **ez** dira Educa aplikazioan sartuko eta txostenak eskuz idatziko dira. Horretarako, ikasle hauek hartzen dituzten ikastetxeek materiala Hezkuntza Departamentuko webgunetik hartuko dute eta edozein laguntza edo argibidetarako Ebaluazio eta Kalitate Atalarekin jarriko dira harremanetan.

H. Probak betetzea

- Probak arkatza edo bolaluma erabiliz beteko dira, ikastetxe bakoitzak erabakitakoaren arabera.
- Zientzia gaitasuneko eta matematika gaitasuneko probetan **kalkulagailua erabili ahal izanen da.**
- Zirriborro papera:
 - Zientzia gaitasuneko eta matematika gaitasuneko probetan ikasleek orri zuriak erabiltzen ahal dituzte eragiketarako, baina oharrak ebaluazio koadernora pasatu beharko dituzte galderak irekiak direnean eta urratsak edo planteamenduak eskatzen direnean.
 - Era berean, ingeleseko proban ikasleek zirriborro papera erabili ahal izanen dute probaren lehen zatian oharrak hartzeko (Listening edo entzumena).
 - Ez da zirriborroaren papera jasoko.

I. Aplikazio fasea prestatzea

- Zuzendaritzako kideek protokolo hau irakasle aplikatzaileen esku utziko dute, aplikatzen hasi baino 72 ordu lehenago, gutxienez. Nolanahi ere, gomendatzen da protokoloa eta ebaluazio prozesu osoaren plangintza taldean aztertzea.
- Ingeles proba egin behar denean bereziki hartu behar da kontuan audio-erreproduzitzailea erabili behar dela eta horretarako berariazko jarraibideak daudela.
- Tutoreek lana prestatuko dute ordua bete aurretik proba bukatzen duten ikasleentzat, lanean jarrai dezaten ikaskideak molestatu gabe.
- Ikastetxeek egokitzat dituzten informazio eta motibazio neurriak hartuko dituzte, egitekoa onartzeko eta lanerako giro egokia sortzeko.

J. Aplikazioa

1. Ikastaldeari eskola ematen dioten irakasleek aplikatuko dituzte probak, **baina ez une horretan ebaluatzen ari den gaitasunarekin zuzenean lotutako irakasleek**. Horren ondorioz, ingeles gaitasuneko proba ez du ingeleseko espezialistak aplikatuko.
2. Aurreko puntua betetzerik ez dagoenean, ebaluatoriko ikastaldeari eskolarik ematen ez dion irakasle batek aplika dezake proba.

3. Aplikazioa egin bitartean, irakasle aplikatzaileak konpromisoa hartuko du protokolo honetan dauden jarraibideei fideltasunez jarraitzeko eta ez du proben, galderen edo testuen edukiari buruzko **argibiderik, ñabardurarik** eta **interpretaziorik** egingen. Aplikatzailearen eginkizuna da errespetuzko eta bakarkako lan giroa bermatzea eta ikasleei hauen antzeko mezuak esanzen dizkie: *arretaz irakurri; segi lanean; galdera ez baduzu ulertu segi lanean eta saiatu geroago; baduzu denbora erreparatzeko...*

Bere lana egoki betetzeko, aplikatzailea ikasgelan gertatzen denaz, ikasleez eta probaren garapenez arduratuko da, eta ikasleek arretaz lan egin dezaten eta eman zaien denbora ahalik eta gehien aprobetxatu dezaten ahaleginduko da.

4. Aplikatzaileak ikasleei proba oso garrantzitsua dela jakinaraziko die, Nafarroako ikasle guztiak egiten ari direla eta ahalik eta ongien egiten saiatu behar dutela, tutoreak familiei ekainean emaitza emanen diela eta abar. Sentsibilizazio lan hori oso garrantzitsua da ikasleen inplikazioa eta ahalegina sustatzeko, eta ikastetxean aurreikusitako lan planaren arabera egin daiteke.
5. Aplikatzaileak ikasleei jakinaraziko die ikasgelan egon behar dutela proba bukatu arte. Lehenago bukatzen badute, tutoreak proposaturiko lanak egin beharko dituzte, ikaskideen lana eten gabe. Aplikatzailea ikasleek egin beharreko lanaren jakitun izanen da, eta lan hori egiten dela bermatuko du.
6. Aplikatzaileak zerrenda bat izanen du taldeko kide guztiekin, baita salbuetsita dauden ikasleen erregistroa ere. Zerrenda irakurriko du, bertaratu gabeak azpimarratuko ditu eta salbuetsita dagoen ikasleren batek proba egiten badu S letra (salbuetsia) idatziko du koadernoan, proba bukatzean.
7. Bermatuko du gelako mahaien artean behar besteko tartea dagoela, lana banakakoa izan dadin. Hori horrela dela bermatuko du saio guztian zehar.
8. Behin dena ordenan dagoela, koadernoan paketea ireki eta koadernoak banatuko ditu. Azaleko datuak betetzeko esan ondoren, probaren koadernoan dauden jarraibideak irakurriko ditu, eta esanen die galdera irekiak daudela, eta baita itxiak ere, eta azken horietan erantzun bat hautatu behar dutela (A, B, C edo D). Esanen die, orobat, galdera irekietan galderaren ondoren dagoen gune librean idatzi behar dutela erantzuna, eta matematika gaitasuneko eta zientzia gaitasuneko probako ariketetan behin eta berriz azpimarratuko du problema ebazteko urratsak edo planteamendua idatzi behar dituztela, galderaren izenburuan hala eskatzen bada.
9. Ikasleek izan ditzaketen zalantza orokorrak argituko ditu, eta adieraziko die bakarrik egin beharko dutela lan, eta zerbait ulertzen ez badute, eskatuko die berriz ere irakurtzeko edo ondoko galderara pasatzeko. Probaren edozein unetan ikasleek berrikusi ahal izanen dituzte aurreko galderak.
10. Behin zalantza guztiak argitu ondoren, arbelean idatziko ditu probaren hasierako eta bukaerako orduak. Probarako esleituriko gehieneko denbora 60 minutu da. Hori denbora erreala edo baliagarria da: "Une honetatik aurrera hasiko gara kontatzen probako 60 minutuak."
11. Behin proba hasita, aplikatzaileak ez du inongo argibiderik edo erantzun berririk emanen, eta probaren edukiari buruzko galderarik egiten badiote, galdera berriz ere irakurtzeko edo ondoko galderara pasatzeko gomendioa egiten die.
12. Bukatzeko 10 minutu falta direnean horren berri emanen du.
13. Probaren denbora bukatzean, aplikatzaileak koaderno guztiak jasoko ditu eta ikastetxeko jarraibideei lotuko zaie, bertaratu gabeko ikaslerik baldin badago, haiek proba beste une batean egin dezaten antolatzeke eta, ondoren, probak zuzentzeko.
14. Ebaluazio eta Kalitate Atalak proben aplikazioaren kalitate kontrola egiten du, ikastetxeen ausazko lagin batean. Aplikazio saioan atalak izendaturiko langileak egonen dira eta protokolo hau betetzen dela kontrolatu eta egiaztatuko dute. Era berean, probak egoki zuzendu direla egiaztatzen ahalko da.

K. Proba egunean etorri ez diren ikasleak

Ebaluazio probak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. ikasmilako ikasle guztiek egin behar dituzte, Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programan (IEHP) eta CEPen ari diren ikasleak barne, eta beraz, proben egunean bertarutzen ez direnek lehenbailehen egin beharko dute, ikastetxe bakoitzak aurreikusitako berreskurapen planaren arabera.


Epeek horretarako aukera ematen badute, erantzunak EDUCA aplikazioan sartuko dira eta, hala egiten ez bada, ikastetxeak aukera dauka probak eskuz zuzendu eta ikaslearen txostena idazteko Hezkuntza Departamentuaren webgunean ikastetxeen eskura jarritako materiala erabiliz, hala nola erantzun zuzenak, ebaketa-puntuak eta asmatze-ehuneak.

L. Ingeleseko hizkuntza gaitasuneko probaren berriazko jarraibideak

Oro har ezarritako jarraibideez gainera, ondoko hauek ere hartuko dira kontuan:

1. Aplikatzaileak, astebete lehenago, egiaztatuko du audio-erreproduzitzailerik eta ingelesezko hizkuntza gaitasuna neurtzeko probako CDa (entzunaldia) egoki dabiltzala eta ikasgela osoan ongi entzuten dela.
2. Aplikatzaileak azalpen guztiak taldeko irakas-hizkuntzan emanen ditu, gaztelaniaz G/A ereduetao ikasleei eta euskaraz D/B ereduetaoiei.
3. Koadernoko azalean eskatutako datuak bete ondoren, probak hiru zati dituela azalduko du:
 - a) LISTENING-A (entzumena): bitan entzuten da ingelesezko entzunaldi bat, eta ondoren entzundakoaren gaineko galderari erantzuten zaie.
 - b) READING-A (irakurmena): 3 testu irakurriko dituzte ingelesez, eta irakurritakoarekin loturiko galderari erantzuten diete.
 - c) WRITING-A (idazmena): testu txiki bat idatziko dute, koadernoaren atal horretako jarraibideei jarraikiz. Adierazi behar zaie alde aurreko eremu bat dutela ideiak antolatzeo, eta hori derrigorrezkoa dela, puntuatzen baita.
4. Jarraian, azalduko du LISTENING-A (entzumena) honela eginen dela:
 - a) Ikasleek 2 minutu izanen dituzte koadernoko *Listening*-eko galderak irakurtzeo, eskatzen zaienaren alde aurreko ideia bat egin dezaten.
 - b) Jarraian, 2 aldiz entzuten dute ingelesezko entzunaldi bat.
 - c) Entzunaldien artean 70 segundoko eten bat dago. Etenean galderak erantzuten has daitezke eta, horrela, ondoko entzunaldiari begira, ulertu ez duten horri errepara diezaioke.
 - d) Entzunaldietan oharrak hartu ahal izanen dituzte, zirriborro orrian.
 - e) Entzunaldia bukatu ondoren, ikasleek dakizkiten galderak osatuko dituzte eta proba egiten segituko dute, norberak bere erritmora.

Ondoko taulan aplikatzaileari esaten zaio zeintzuk diren LISTENING (entzumena) ataleko jarduerak eta denborak:



5. Aplikatzaileak galdetuko du ba ote den zalantzarik probaren gainean, hiru zatietako baten gainean, egin behar dutenaren gainean, etab.; eta zalantza horiek argituko ditu, aurreko urratsak errepikatuz, ikasle guztiendako erabat argi gelditu arte.
6. Zalantzak argiturik, arbelean idatziko du hasierako eta bukaerako denbora, kontuan izanik proba egiteko guztira 60 minutu daudela eta denbora une horretan bertan hasiko dela. Esanen die 2 minutuz *Listening*-eko galderak irakurri behar dituztela eta, denbora hori pasatu ondoren, audio ekipoa martxan jarriko duela.
7. Proba bukatzeko 20 minutu falta direnean, ikasleei denbora hori falta dela gogoraraziko die, eta iradoki, halaber, idazketa ariketarekin hasteko (WRITING-A).

M. Probak aplikatzeko egutegia

Proba guztiek 60 minutuko iraupen erreala dute, eta ondoko egutegiaren arabera egingen dira:

Astelehena Apirilak 8	Asteartea Apirilak 9	Asteazkena Apirilak 10	Osteguna Apirilak 11	Ostirala Apirilak 12
	Matematika gaitasuna	Zientzia gaitasuna	Hizkuntza gaitasuna euskaraz (B/D ereduak)	
	Atsedena / Jolas-ordua	Atsedena / Jolas-ordua	Atsedena / Jolas-ordua	
	Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna (A/G ereduak eta B/D ereduak)	Ingeleseko hizkuntza gaitasuna		

N. Proben zuzenketa

- Epeak.** Probak aplikatu ondoren, zuzendu egingen dira. Gomendagarria da aplikazioa egin ondoren egitea, aste horretan zehar edo hurrengo 5 eskola-egunetan; zuzenketa bukatzeko gomendatutako data maiatzaren 2a (osteguna) izanen litzateke.
- Irakasle zuzentzaileak ondoko hauek dira:

Proba	Zuzentzailea
Hizkuntza gaitasuna	Gaztelania edo Euskara irakasleak
Matematika gaitasuna	Matematika irakasleak
Zientzia gaitasuna	Zientzietako irakasleak (Fisika-Kimika eta/edo Biologia-Geologia)
Ingeles gaitasuna	Ingeles irakasleak

- Proba bakoitzak zuzenketa koaderno bat du, eta bertan zehazten dira galdera irekiak zuzentzeko irizpideak. Koaderno hauek ikastetxeak eskura izanen ditu, honako helbidean:

<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/evaluacion-y-calidad/evaluacion/evaluacion-externa/evaluacion-de-navarra/educacion-secundaria-curso-2018-2019>

Koadernoak babestuta daude pasahitzaren bidez; hori probak aplikatu baino astebete lehenago ikastetxeko zuzendariaren esku jarriko da, irakasle zuzentzaileei jakinaraziko dielarik.

Aplikazio egun bakoitzean, 14:00etatik aurrera, webgunera igoko dira egutegi ofizialaren arabera aplikatutako probak, irakasleak zuzenketa lanetan has daitezten.

Ikaslearen erantzuna zuzenketa irizpideekin alderatu ondoren, zuzentzaileak puntuazioa edo behar den kodea (0, 1, 2...) ikaslearen koadernoan jarriko du.

Galdera itxiak ez dira zuzendu behar. Ikaslearen erantzunak Educa aplikazio informatikoan sartuko dira eta puntuazioa automatikoki emanen zaie.

O. Datuak sartzea



1. **Epeak. Apirilaren 8tik aurrera**, ikasleria matrikulatu eta datuak sartzen ahalko dira, **maiatzaren 9a**, osteguna, epemuga izanik.
2. Irakasleek datuak Educan sartu ahal izateko, ezinbestekoa da ikastetxeko zuzendariak **matrikulatzea** ebaluatzen ahal diren ikasle guztiak. Pauso hori egiten da “Ikastetxearen ebaluazioa” → “Ebaluazio diagnostikoa” → “Ikasleak” menutik. Talde bakoitzaren matrikula automatikoki egiten da zuzendariak formularioa bidaltzen duen lehen aldian (“**Bidali**” beheko botoian).
3. Ikasleen koadernoak zuzendu ondoren, Educa aplikazio informatikoan sartuko dira galdera itxiei emandako erantzunak (A, B, C, D) eta galdera irekiei emandako puntuazioak (0, 1, 2...). Bi alderdi azpimarratu behar dira:
 - *Galdera itxietan* testu kodea sartuko da (A, B, C, D,...) Besterik ezean, NR (no responde), gaztelaniaz, edo EDE (ez du erantzuten), euskaraz, agertuko da. Erabili aukera hau ikasleak erantzunik eman ez duenean, erantzun bat baino gehiago markatu dituzenean edo hautatutako erantzuna argi zehazterik ez dagoenean.
 - *Galdera irekietan* zenbaki-kodea sartuko da (0, 1, 2, ...) Zenbakizko kodifikazioak ez du onartzen NR/EDE aukera. Gomendatzen da 0 adieraztea ez-erantzunerako, erantzun hori bete gabe utzi beharrean.

Hezkuntza Departamentuko webgunean eskuliburu bat dago (EDUCA gida), Educan datuak sartzeko jarraibideekin. Era berean, izan daitezkeen zalantzak Ebaluazio eta Kalitate Atalean argituko dira, posta elektronikoaren bidez (sec.eka@navarra.es) edo telefono hauek erabiliz: 848 42 71 19 / 848 42 67 98.

4. Ezinbestekoa da ebaluatoriko ikasle guztien datuak zuzen erregistratu direla ziurtatzea, zeren eta datuak sartzeko epea bukatu ondoren ez baita aldaketarik egiten ahalko.

Tutoreak egiazta dezake Educan zer dagoen erregistraturik ikasle bakoitzaren gainean. Era berean, zuzendariak bi formatuetan (pantaila edo CSV fitxategia) bistaratu dezakete eta egiaztatu datu edo erregistro osatugabe edo hutsak dituen ikaslerik baden.

Datuak falta badira edo akatsak badaude, Educa aplikazioak ikaslearen eta ikastetxearen txostenak sortuko ditu gertaera hori kontuan harturik. Dena dela, Educa aplikazioak ez du ezarritako epeetatik kanpora aldaketarik edo zuzenketa egiten uzten. Hori hala izanik ere, ikastetxeak berak **eskuz** zuzendu edo osatu ditzake txosten horiek horretarako baliatuz aipatutako CSV fitxategiak eta Hezkuntza Departamentuaren webgunean eskuragarri dagoen dokumentazioa. Eskulan hau neketsua izan aiteke. Beraz, komeni da datuak sartzean akatsak edo hutsegiteak saihestea eta zuzendariak erregistratutako datuak gainbegiratzea gorago aipatutako CSV fitxategia erabiliz.

5. Salbuetsita dauden ikasleak aipaturiko erregistroetan identifikaturik geldituko dira, “salbuetsita” zutabearen dagokien laukitxoan markatuta. Salbuetsita dauden ikasleen datuak ez dira kontuan hartuko ikastetxeko txostenean edo ikastetxeko estatistikoen kalkuluan, bere erantzunak erregistratuak izan badira ere.
6. Salbuespenez, salbuetsirik ez dauden ikasleek ezin izan baldin badute egin gaitasunen baten edo gaitasun guztien proba, zuriz utziko dira Educan dagozkien erregistroak.
7. Ikastetxeko zuzendariak adierazitako faseak eta epeak betetzen direla begiratuko du. Ebaluazio faseak jarraibideei jarraikiz egiten badira, Ebaluazio eta Kalitate Atalak aukera du horien garapena gainbegiratzeko eta ikastetxeetako kontsultei hobeki erantzuteko.

P. Ikaslearen eta ikastetxearen txostenak eskuratzea



1. Maiatzaren 27tik aurrera ikastetxeek txostenak eskuratuko dituzte, Educa aplikazio informatikoaren bidez. Txostenak soilik egonen dira eskuragarri ekainaren 30era arte. Hezkuntza Departamentuko webgunean eskuliburu bat dago (EDUCA gida), txostenak eskuratzeko jarraibideekin. GARRANTZITSUA: ekainaren 30a baino lehen, ikasleen eta ikastetxearen txostenak deskargatu eta gorde behar direla oroitarazten da.
2. Ikaslearen txostena.

Ondoko informazioa du:

- * Gaitasun mailen definizio generikoa.
- * Ebaluaturiko gaitasun bakoitzean lortutako **maila**.
- * Proba bakoitzean **zuzenean lortutako puntuak**. Gaitasun mailari dagokion informazioa osatzen du, gaitasun maila bakoitzean puntuazio-tarte zabalak daudelako eta ebaketa-puntuak zein diren ezagutuz gero ikaslea mailaren zein zatitan (behekoa, erdikoa edo goikoa) dagoen jakiterik izanen dugulako.
- * 500 puntuko batezbestekoa eta 100eko desbideratze tipikoa dituen **eskalara ekarritako puntuazioa**, gaitasun bakoitzerako, eta haien irudikapen grafikoa.

Gaitasun bakoitzerako, zuzenean lortutako puntuazioak 500eko eskalara ekartzen dira, ondoko adierazpen matematikoaren bidez:

$$y = 100 * \frac{(x - \bar{X})}{DT} + 500$$

y 500eko eskalara ekarritako puntuazioa da

x ikasleak zuzenean lortutako puntuazioa da

\bar{X} Nafarroako batezbestekoa da ebaluaturiko gaitasunean

DT Nafarroako desbideratze tipikoa da ebaluaturiko gaitasunean

Puntuazioak eskala komun honetara ekartzeak aukera ematen du ikasleak proba bakoitzean zer errendimendu izan duen konparatzeko eta, orobat, Nafarroako batezbestekoarekin konparatzeko moduko informazioa izateko (Nafarroako batezbestekoa proba guztietan 500 da).

500eko puntuazioa ez da "gainditu" modura interpretatzen. Jakin badakigu puntuazio hori gaitasunaren 3. mailan dagoela (eskuarki, maila horren behealdean).

- * **Oharretarako gunea**, tutoreak bete dezakeena. Ebaluazio diagnostikoko txosten honen xedea da ikasle bakoitzarendako hobekuntza neurriak hartzea eta badu *oharrak* izeneko atala, mezuren bat idatzi nahi bada erabil daitekeena.

Ikaslearen txostena tresna baliagarri bat da, tutoretza lanaren testuinguruan, ekainean familiei emateko.

Educa aplikazio informatikoak aukera ematen du ikastaldeko txosten guztiak artxibatze eta paperean inprimatzeko, modu erosoan.

3. Ikastetxearen txostena (ikastetxeko ikasleen emaitza orokorrekin egindako txostena).

Ikastetxeetako zuzendariak, Educa aplikazio informatikoaren bidez, ikastetxeko ikasleek erdietsitako emaitzen **txosten orokorra** eskuratuko dute, Nafarroako batez besteko emaitzekin erkatuta. Txostenak ondoko informazioa du:

- * Sarrera, haren irakurketa eta emaitzen barne azterketa errazteko.
- * Ikastetxeko ikasleen emaitzak gaitasun bakoitzean.
- * Ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean.
- * Maiztasun grafikoak, puntuazio bakoitzerako.
- * Erantzun zuzenen ehunekoa item bakoitzerako, grafikoarekin.
- * Batez besteko puntuazioak talde bakoitzerako.
- * Emaitzak alderatzen dituzten grafikoak, gaitasunez gaitasun, baita eskala komun batera ekarritako puntuazioekin ere.
- * Gaitasun bakoitzerako *Errendimendua-ISEK* erregresio-zuzena duten grafikoak, ikastetxea zein tokitan dagoen adieraziz.

Klaustroak ebaluazio diagnostikoko emaitzak aztertu eta baloratuko ditu. Datuen gaineko hausnarketa egin ondoren, hobekuntza ildoak planteatuko dira eta horren guztiaren berri emanen zaio eskola kontseiluari.

Ikastetxeetako zuzendariak urtez urte egiten diren ebaluazioen txostenak formatu elektronikoa gordeko dituzte.

4. Datuen fitxategia (CSV formatuan)

Ikaslearen eta ikastetxearen txostenez gain, Educa aplikazioak CSV formatuan dagoen fitxategi bat ere ematen du, non ikastetxeko ikasleen erantzunak dauden, taula batean adierazita. Fitxategian ondoko informazioa dago, gaitasun bakoitzari buruz:

- Ikasleen erantzunak. Galdera itxien kasuan, ikaslearen erantzuna jasotzen da (A, B, C, D) eta galdera irekien kasuan, esleitutako puntuazioa (0, 1, 2...). Informazio horri esker, modu zehatzagoan azter daiteke egin diren akatsak eta asmatu diren galderak.
- Ikasleek zuriz utzi dituzten galderak. Informazio horri esker, azter dezakegu zenbateraino diren gai ikasleak ahalegin eta autonomia handiagoa eskatzen dituzten jardueri aurre egiteko.
- Lortutako puntuazio zuzena.
- Esleitutako gaitasun maila.

Datuen fitxategiak ikastetxeari laguntzen dio azterketa osagarriak egiten eta Educa aplikazioak sortzen duen txostena osatzen. Esate baterako, CSV fitxategiaren datuekin ondokoa egin daiteke:

- Gaitasun desberdinen puntuazioen arteko korrelazioak kalkulatzeko.
- Gaitasun desberdinetako gaitasun mailen arteko korrelazioak kalkulatzeko.
- Grafikoak egitea eta ikasleen puntuazioen banaketa mailaren arabera irudikatzea.
- Gaitasun desberdinen puntuazioen eta barneko ebaluazioetan ikasleek lortu dituzten emaitzen arteko korrelazioak kalkulatzeko.
- Ikasleen erantzunak eta emaitzak alderatzea taldearen, sexuaren eta abarren arabera.
- Eta abar.

CSV fitxategia formatu irekiko dokumentu mota bat da, oso xumea, eta kalkulu orriak kudeatzeko erabiltzen den edozein programarekin ireki eta maneiatu daiteke.

Q. Egindako probak gordetzea

Zuzendutako **koadernoak** ikastetxean **zaindu** eta **gordeko** dira **2019ko azaroaren 30a arte**, data horretatik aurrera desegin ahalko direlarik. Ordura arte Ebaluazio eta Kalitate Atalak eska ditzake, zuzenketa irizpideen baliozkotasuna egiaztatzeko azterlanak egin behar badira edo horiek modu zuzen eta homogeneoan jarraitu ote diren jakiteko.

R. Eskerrak ematea

Ebaluazio eta Kalitate Atalak eskerrak eman nahi dizkie ebaluazio zeregin honetan arituko diren zuzendaritza talde, tutore, irakasle, orientatzaile, zerbitzuetako langile, ikasle eta familiei.

*Iruña – 2019ko urtarrilaren 14a
Ebaluazio eta Kalitate Atala
Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua*

1. ERANSKINA - SALBUETSITAKOEN ERREGISTROA

2018/2019 ikasturteko Ebaluazio diagnostiko zentsala

DBHko 2.a

SALBUETSITAKOEN ERREGISTROA

Ikastetxea:

 X batekin markatu bakarrik ikastetxeak ez badu salbuetsirik dagoen ikaslerik

Salbuetsitako enregistra			
	Taldea	Izen-abizenak	Arrazoa (A, B, C)
1.			
2.			
3.			
4.			
5.			
6.			
7.			
8.			
9.			
10.			

- A.** Hezkuntza Sistemaren berandu sartu diren ikasleak, Curriculum Eguneratzeko Planaren (CEP) ari direnak, curriculum atzerapen larria eta/edo eskolatzeko hizkuntzan (gaztelania edo, bestela, euskara) gabezia handiak badituzte.
- B.** Proba egitea galarazten duen inguruabar iragankorra (esate baterako, igeltsatutako besoa, ikusmen urria...).
- C.** Ikasleek desgaitasun psikiko, fisiko, zentzumenezko edo mugitzeko dutenean, edo portaeraren arazo larriak, horrela erregistraturik badaude Educa kudeaketa programan, DBHko 2. mailan Curriculum Egokitzapen Esanguratsuekin (CEE) ari direnean.

* Erregistro hau ikastetxean gordeko da (ez da Ebaluazio eta Kalitate Atalera bidali behar).

2. ERANSKINA - EGOKITZAPENEN ERREGISTROA

2018/2019 ikasturteko Ebaluazio diagnostiko zentsala

DBHko 2.a

EGOKITZAPENEN ERREGISTROA

Ikastetxea:

X batekin markatu bakarrik ikastetxeak ez badu salbuetsirik dagoen ikaslerik

Egokitzapenen erregistroa			
	Taldea	Izen-abizenak	Egin beharreko egokitzapena
1.			
2.			
3.			
4.			
5.			
6.			
7.			
8.			
9.			
10.			

* Erregistro hau ikastetxean gordeko da (ez da Ebaluazio eta Kalitate Atalera bidali behar).

3. ERANSKINA - Jarduketa garrantzitsuenen egutegia

2019ko otsaila						
al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	lg.
28	29	30	31	1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28			

→ Zuzendariak erabiltzaile eta pasahitzetara sarbidea izango dute (Educan, urtarrilaren 28tik aurrera)

→ *Online* galdera-sortaren aplikazioa (otsailaren 1etik 28ra arte)

Online galdera-sortak otsailaren 28a baino lehen aplikatu!
(Aplikazioa azken egunetarako ez uztea gomendatzen da)

2019ko martxoa						
al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	lg.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

→ Egokitzapenen eta salbuespenen erregistroa (paperean, ez Educan)

→ Probak jasotzea (martxoaren 25a, 26a eta 27a)

2019ko apirila						
al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	lg.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

→ Zuzendariak ikasle taldeen matrikula egitea (Educa, apirilaren 8tik aurrera). Salbuesitako ikasleen erregistroa Educan.

→ Materiala egiaztatzea: probak eta ingelesezko CDa (apirilaren 3a arte)

→ Proben aplikazioa (apirilaren 9a, 10a eta 11a). Zuzenketen hasiera.

→ Probak zuzentzea eta datuak eta salbuespenak Educan erregistratzea (apirilaren 10etik maiatzaren 9ra arte)

2019ko maiatza						
al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	lg.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

GARRANTZITSUA: irakasle aplikatzaile eta zuzentzaileek erabat isilpean gordeko dute proben edukia, 2019ko maiatzaren 10era arte.

→ Ikasleen eta ikastetxearen txostenak eskuratzea (maiatzaren 27tik ekainaren 30era)

2019ko ekaina						
al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	lg.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

Gorde txostenak (ikasleenak eta ikastetxearenak) ekainaren 30a baino lehenago!